


Euskal AEko okupatuak %0,2 jaitsi eta langabezia-tasa %11,3, 2018ko lehen hiruhilekoan

Pertsona aktibo guztiak langabezian dauzkaten familia-etxeak, gutxitu

Euskal AEko lan-merkatuko 2018ko lehen hiruhileko datuen arabera, okupatuak 916.900 ziren, hiru hilabete lehenago baino 1.400 gutxiago, (%-0,2), Eustaten datuen arabera. Langabezia-tasa, %11,3; 2017ko laugarren hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,2 puntu gehiago.

Jarduera-tasa %56,2 2018ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan bezalaxe.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Bilbon 1.500 okupatu gehiago; 1.000 gutxiago Donostian; 500 gutxiago Gasteizen. Gipuzkoan +1.300; Bizkaian -2.500; Araban -100.

Emakume okupatuak aurreko hiruhilekoan baino 6.600 gutxiago; gizonak 5.200 gehiago.

Okupazioaren goraka sektore guztietan, zerbitzuetan izan ezik

Eraikuntzan 1.400 okupatu gehiago; lehen sektorean 100; 2.900 industrian; zerbitzuetan -5.800.

Okupazio-tasa, 16tik 64 urtera bitarteko biztanle-kopuruaren gainean landunen ehunekoa, %66,4, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. Gizonentzat %70,3; emakumeentzat %62,5.

Okupazio-tasarik altuena, Gipuzkoak, %68,6, aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,1 puntu gehiago; Arabak %66,4 (6 hamarren gutxiago); Bizkaiak %65,1, hamarren bat gutxiago.

Pertsona aktibo guztiak okupatuta dauden familia-etxe gehiago eta denak langabeziak dituztenak gutxiago

2018ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko 884.600 (zenbatetsia) familia-etxeetako heren batean ez dago pertsona aktiborik. Erdia pasatxoan pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, aurreko hiruhilekoan baino 4.700 familia gehiagotan; pertsona aktibo guztiak langabezia dituztenak 39.900 dira, aurreko hiruhilekoan baino 500 gutxiago.

Langabezia, %11,3; aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren gehiago

Langabeak, hots, lan bila aritu, bilatzeko kudeaketa aktiboak egin eta gainera lanerako prest daudenak, urteko lehen hiruhilekoan 116.600 direla zenbatetsi da, 1.800 gehiago aurreko hiruhilekoan baino. Emakume langabeak, 61.800, 5.600 gehiago. Gizonak, 3.900 gutxiago, 54.700.

2018ko lehen hiruhileko datuen arabera, langabezia-tasa %11,3, aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,2 puntu gehiago. Emakumeen langabezia %12,5era gehitu (ehuneko 1,1 puntu gehiago); gizonena 0,8 puntuz jaitsi, %10,1era. Gazteen langabezia-tasak altuena izaten segitzen du, %19,5 (ehuneko 2,3 puntu gehiago); 16-24 urte bitarteko 7.700 gazte aktibo langabezia.

Langabe-gehekuntzarik handiena, Araban (+2.500); langabezia-tasa, %12,2, aurreko hiruhilekoan baino 1,4 puntu gehiago. Gipuzkoan %8,6ko tasa (+0,2 puntu); langabe kopuruan 700 gehiago, 29.000 guztira. Bizkaian 1.500 langabe gutxiago aurreko hiruhilekoaren aldean; langabezia-tasa %12,7 (-0,2). Gasteizen 1.900 langabe gehiago; Donostian +600; Bilbon -700.

EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2018ko otsailean, 28-EBko langabezia-tasa %7,1, Espainiakoa %16,1.

Azken urtean okupatuak gehitu eta langabeak jaitsi

Euskal AEko okupatuak 5.000 gehiago, 2017ko lehen hiruhilekoaren aldean. Gizonei eragin die batik bat okupazio-handitzeak, 5.900 gehiago; emakumeen kasuan, 900 gutxiago.

Langabezia-tasa ehuneko 2 hamarren jaitsi da (%11,5etik %11,3ra). 2017ko lehen hiruhilekoan baino 2.100 langabe gutxiago Euskal AEn.

NLEren irizpidearen arabera, hiruhileko batez besteko bazkidetuen %98,4 okupatuta dago

Euskal AEn 860.200 hiruhileko batez besteko bazkide daudela zenbatesten da, inkesta garaian Euskal AEko biztanle eta Gizarte Segurantzako bazkide. Haien arteko %98,4 okupatuak dira, BJAk erabilitako Nazioarteko Lan Erakundearen (NLE) irizpideen arabera, 846.500 pertsona.

BJAren NLE okupatuena %7,1 (65.000 pertsona) ez dira Gizarte Segurantzako bazkide Euskal AEn kokatutako enpresetan, izan daitezkeelarik funtzionarioen mutualitate publikoetakoak, beste erkidegoetako enpresetakoak edo bestela.

Langabeen %31 ez dago langabe gisa erregistraturik Lanbiden

Euskal AEn 111.400 langabe daudela zenbatesten da, batez beste eta Lanbiden erregistraturik; alegia, Euskal AEn bizi eta inkestaren garaian Lanbiden erregistratuta langabe kategoriaren batean. Haietatik %70 langabeak dira NLEren definizioaren arabera. (78.000 langabe). BJAren NLE langabeen %31 ez daude erregistratuta Lanbiden langabe gisa (36.100 pertsona), baina baliteke beste kategoriaren batean egotea.

Euskal AEn biztanleria jardueraren arabera (1). 2018/I

	2018/I	2017/IV	Aldakuntza, aurreko hiru hilekoaren aldean	
	Milakoak	Milakoak	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.837,7	1.839,3	-1,6	- 0,1
AKTIBOAK	1.033,5	1.033,1	+0,4	+0,0
Gizonak	540,0	538,7	+1,3	+0,2
Emakumeak	493,5	494,3	-0,8	-0,2
Araba/Álava	157,3	154,9	+2,4	+1,5
Bizkaia	538,4	542,4	-4,0	-0,7
Gipuzkoa	337,8	335,7	+2,1	+0,6
BIZTANLERIA LANDUNA	916,9	918,3	-1,4	-0,2
Gizonak	485,3	480,1	+5,2	+1,1
Emakumeak	431,6	438,2	-6,6	-1,5
Araba/Álava	138,1	138,2	-0,1	-0,1
Bizkaia	470,1	472,6	-2,5	-0,5
Gipuzkoa	308,7	307,4	+1,3	+0,4
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	10,3	10,2	+0,1	+1,0
Industria	203,3	200,4	+2,9	+1,4
Eraikuntza	50,1	48,7	+1,4	+2,9
Zerbitzuak	653,2	659,0	-5,8	-0,9
Soldatakoak	737,2	737,1	+0,1	+0,0
- Kontratu mugagabea dutenak	515,9	519,7	-3,8	-0,7
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	221,3	217,3	+4,0	+1,8
Ez soldatakoak	179,7	181,2	-1,5	-0,8
LANGABEAK	116,6	114,8	+1,8	+1,6
Gizonak	54,7	58,6	-3,9	-6,7
Emakumeak	61,8	56,2	+5,6	+10,0
16 - 24	7,7	6,1	+1,6	+26,2
25 - 44	58,8	61,6	-2,8	-4,5
45 eta gehiago	50,1	47,2	+2,9	+6,1
Araba/Álava	19,2	16,7	+2,5	+15,0
Bizkaia	68,3	69,8	-1,5	-2,1
Gipuzkoa	29,0	28,3	+0,7	+2,5
EZ-AKTIBOAK	804,2	806,2	-2,0	-0,2
ETXEBIZITZAK	884,6	884,4	+0,2	+0,0
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	604,7	599,5	+5,2	+0,9
- Guztiak okupatuak	511,0	506,3	+4,7	+0,9
- Guztiak langabeak	39,9	40,4	-0,5	-1,2
Aktiborik gabeko etxebizitzak	279,9	284,9	-5,0	-1,8

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1ekiko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Biztanleria jardueraren arabera. Tasa nagusiak (1). 2018/I

	2018/I	2017/IV	Aldakuntza, aurreko hiru hilekoaren aldean (e.p. *)
JARDUERA-TASA	56,2	56,2	+0,0
Gizonak	61,1	60,9	+0,2
Emakumeak	51,7	51,8	-0,1
Araba/Álava	58,1	57,3	+0,8
Bizkaia	55,7	55,9	-0,2
Gipuzkoa	56,3	56,1	+0,2
BETETZE-TASA (16-64 urte bitarte)	66,4	66,5	-0,1
Gizonak	70,3	69,6	+0,7
Emakumeak	62,5	63,4	-0,9
Araba/Álava	66,4	67,0	-0,6
Bizkaia	65,1	65,2	-0,1
Gipuzkoa	68,6	68,5	+0,1
LANGABEZIA TASA	11,3	11,1	+0,2
Gizonak	10,1	10,9	-0,8
Emakumeak	12,5	11,4	+1,1
16 - 24	19,5	17,2	+2,3
25 - 44	12,0	12,3	-0,3
45 eta gehiago	10,0	9,5	+0,5
Araba/Álava	12,2	10,8	+1,4
Bizkaia	12,7	12,9	-0,2
Gipuzkoa	8,6	8,4	+0,2
EZ-AKTIBOTASUN TASA	43,8	43,8	+0,0

*e.p. = Aldea, ehunekotan

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1ekiko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

NOTA METODOLOGIKOA: 2017ko datuak berrikusi dira 2017ko urtarilaren 1eko biztanleria oinarri harturik lortutako proiektzioetatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62